

## **KOSTU EGITURA**

### **- Zein dira zuen proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?**

Kostu mota desberdinak izango ditugu. Finkoei dagokionez, garaje bat alokatzea ez du diru gehiegirik kostatuko, hortaz, alde horretik ongi. Aldagarriak gure ekoizpenaren menpe egongo dira (geroz eta gehiago ekoiztu, geroz eta lehengai edo ekipamendu gehiago behar, hortaz garestiago). Dena den, asko ekoizten badugu hedapen ekonomiko bat izan dugunaren seinale izango da, hori dela eta, gastuak eta diru-sarrerak orekatzea ez da zaila izango. Momentuz ez dugu aurreikusten kostu handirik.